

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO
TXANTILLOIA

Urteko/ikasmailako programazio didaktikoa

IKASTETXEA: Lauro Ikastola	KODEA:
ETAPA: DBH	ZIKLOA/MAILA: 2. zikloa / 4. maila
ARLOA/IRAKASGAIA: Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza	
OSATUTAKO ARLOAK/IRAKASGAIAK:	
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUAK:	
IRAKASLEA: Jonan Gomez Barrenetxea	IKASTURTEA: 2021–2022

Zeharkako konpetentziak:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
1. Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak eta baliabideak ondo ezagutzea eta erabiltzen jakitea, teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea, teknologia horiek artelanak diseinatzeko eta garatzeko erabiltzea, eta ikusizko kulturaren nagusi diren lan eta adierazpenetan identifikatzea eta balioestea.	1. Proposatutako arazo artistikoarekin bat datozen euskarri, material, baliabide, prozesu eta prozedurak erabiltzeko gai izatea, eta horiekin guztiekin ondo samar moldatzea bere arte-ekoizpenetan. • Behar bezala erabiltzen ditu irudiak sortzeko bitartekoak eta teknikak, akabera egokiak baliatuta. • Egoki erabiltzen ditu teknologia-oinarriko bitarteko askotarikoak, adierazpenerako eta komunikaziorako. • Egokitasunez arrazoitzen du zergatik hautatu dituen teknika eta material zehatz batzuk lan plastiko eta bisual jakinak egiteko. 3. Espresio- eta komunikazio premietara ondoen egokitzen diren bitartekoak hautatu, erabili eta identifikatzeko arazoak modu arrazoituaren konpontzeko gai izatea, eta, hala behar izanez gero, bere arte-ekoizpenetan hizkuntza bat baino gehiago uztartzeko gai izatea. • Bere artelanei zentzua ematen dieten baliabide plastikoaren eta bisualen erabilera arrazoitzen du. • Zentzua dakarten baliabideen erabilera ulertzen du eta bere lanetan erabiltzen ditu. • Baliabide teknikoak erabiltzen ditu giza pertzepzioa zabaldu eta testuinguru berriak sortzeko. • Badaki nola errazten duten teknologiek arte-ekoizpeneko prozesua. 4. Objektuak eta ingurunea irudikatzeko

2. Gure kulturen diseinuarekin, ikus-entzunezko euskarria duten hedabideekin, eta objektu nahiz formen adierazpen sistema teknikoekin lotutako ekoizpen artistiko estetiko gune eta esparruen berri jakitea, eta horien kode espezifikoak ondo ulertzea, mota horretako arte-adierazpenak kritikoki aztertze eta espresio eta komunikazio baliabideak erabiltzeko.	konbentzioen oinarriko arauak ezagutzeko eta erabiltzeko gai izatea, eta errealitateari buruzko informazioa ulertzeko eta erabiltzeko bideak hartzea horiek guztiak. • Baliabide geometrikoak erabiltzen dituzte objektuak eta espazioak irudikatzeko arazoak ebazteko. • Ulertzen du kodetutako adierazpen- edo irudikatze-sistemak eta beste baliabide geometriko batzuk erabiltzearen beharizan soziala. 2. Kritikoki aztertzea mezuetan esku hartzen duten baliabide plastiko eta bisualak, eta horretan, mezuon intentzioari eta mezuok iritzi publikoan, bizi-estiloetan eta osasun indibidual nahiz kolektiboan duten eraginari igartzea. • Irudietan ageri diren adierazpen-elementuen irakurketa ugari egiten eta hautematen ditu. • Ikuspegi pertsonal eta arrazoituak hartzen dituzte mezuak ikertu eta aztertzean. • Artelanak aztertzen ditu, eta, besteak beste, artelanetako euskarriak, teknikak, baliabideak eta konbentzioak balioesten ditu. 7. Ikus-entzunezko edukiei eta multimedia-edukiei buruz gogoeta egitea, horiekin espermentatzea, eta ikus-entzunezko mundua komunikazio-bideak hartzeko gai izatea. • Euskarri bisuala eta audiobisuala duten komunikabideen aukerak eta berezitasunak identifikatzen ditu. • Narrazio audiobisual eta multimediak aztertzen ditu, haien komunikazio-elementuei erreparatuta. 14. Arte-adierazpenak etengabe aldatzen ari direla jakitea, eta ohartzea artean beti daudela presente kulturen arteko erlazioak eta pertsonen nahiz gizarteek elkarrengan dituzten eraginak. • Elkarrekiko eraginak ikertzen ditu hainbat artistaren lanetan. • Beste pertsona batzuen ideiak eta proposamenak bereganatzen dituzte modu arrazoituan, proposamen plastiko berriak lantzeko. • Beste herri eta kultura batzuen artelanekiko interesa eta errespetua adierazten du, eta artelan horiek jatorriko kulturen duten esanahia
---	--

3. Emozioak, sentimenduak, bizipenak, ideiak, eta natura nahiz kultura-inguruneke espazio, objektu eta elementuak adierazteko balio duten obra artistiko estetikoak sortzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta auto-konfiantzan aurrera egitea. 4. Bilaketa, irudimena, ikusizko baliabideen sormenezko manipulazioa eta antzeko beste trebetasun batzuetan oinarrituta, eta ikuspuntu estetiko bati eutsiz, inguruko objektuak transformatzea, egoerak arazo bihurtzea eta konponbide ugari proposatzea.	jakiteko ahalegina egiten du. 6. Diseinua eta diseinuaren aplikazio-eremuak balioestea, horiek aintzat hartzea, gure eguneroko bizitzako ekoizpen estetikoekin lotutako esparrutzat hartzea, eta haiekin lotutako sormen-teknikak eta -baliabideak erabiltzea. • Objektuak diseinatzen ditu, proiektu arrazoituak eginda. • Diseinuaren sormen-eremuak ezagutzen ditu. 8. Artelan konplexuak ekoiztea, eta horretan, mota askotako baliabide espresiboak modu arrazoituan erabiltzea. • Bere artelanei zentzua ematen dieten baliabide plastikoen eta bisualen erabilera arrazoitzen du. • Lan artistiko eta bisualen bidez komunikatzeko jarrera adierazten du. • Komunikazio-xedea betetzen duten irudiak egiten ditu –bozetoak, apunteak, azterketak, etab.–. 3. Espresio- eta komunikazio premietara ondoen egokitzen diren bitartekoak hautatu, erabili eta identifikatzeko arazoak modu arrazoituan konpontzeko gai izatea, eta, hala behar izanez gero, bere arte-ekoizpenetan hizkuntza bat baino gehiago uztartzeko gai izatea. • Bere artelanei zentzua ematen dieten baliabide plastikoen eta bisualen erabilera arrazoitzen du. • Zentzua dakarten baliabideen erabilera ulertzen du eta bere lanetan erabiltzen ditu. • Baliabide teknikoak erabiltzen ditu giza pertzepzioa zabaltzeko eta testuinguru berriak sortzeko. 5. Espazioa irudikatzeko sistemak desberdintzea eta erabiltzea, eta marrazketak artean, arkitekturan, diseinuan, ingeniartzan, eszenografian eta beste hainbat alorretan balio komunikatibo unibertsala duela aintzat hartzea. • Objektuak eta espazioak irudikatzeko arazoak ebazten ditu, formen posizioaren eta neurrien arteko harreman egokiak ezarrita. • Komunikaziorako egokiena den irudikatze-sistema egokiena hautatzen du formak eta objektuak irudikatzeko. 9. Bilaketa, irudimena, sormenezko manipulazioa eta antzeko beste trebetasun batzuetan
--	--

5. Bakarka nahiz modu kolektiboan proiektu artistiko baten gaineko plangintza egitea, eta, gero, prozesu horri buruz gogoeta egitea, lortu nahi den horretan intentzioak, fase bakoitzaren berrikusketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz ohartzeko, eta hori guztia dela eta, talde-lana arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziekiko errespetuz egin beharra aintzat hartzea.	oinarrituta, gai izatea beste pertsona batzuek proposatutako ideiak, irudikapena eta beste alderdi batzuk transformatzeko. • Adierazteko eta irudiak sortzeko modu berrien gaineko argudioak ematen ditu. • Arrazoitu egiten ditu bere interpretazioak eta analisiak. • Objektuak eta egoerak ikuspegi estetiko edo formaletatik begiratzeko bestelako moduak planteatzen ditu. 8. Artelan konplexuak ekoiztea, eta horretan, mota askotako baliabide espresiboak modu arrazoituan erabiltzea. • Bere artelanei zentzua ematen dieten baliabide plastikoen eta bisualen erabilera arrazoitzen du. • Lan artistiko eta bisualen bidez komunikatzeko jarrera adierazten du. • Komunikazio-xedea betetzen duten irudiak egiten ditu –bozetoak, apunteak, azterketak, etab.–. 10. Proposamen konplexu bat egin behar duela eta, lan-prozesu bateko urratsak irudikatu eta planifikatzeko gai izatea, eta horretan, bere komunikazio-premiak aintzat hartzea, eta lan-plangintza horren zergatia arrazoitzeko gai izatea. • Koherentziaz lantzen eta zuzentzen ditu proiektu artistikoak, hasierako ideiatik amaieraraino. • Bere lan-plangintzak berrikusten ditu, haiek betetzeko prozesuak ebaluatzen ditu eta aldaketak egiten ditu emaitza hobeak lortzeko. • Taldean sortzen eta planifikatzen ditu obra konplexuak, adierazpen artistikorako modu askotarikoak darabiltzatenak. 11. Zenbait jarduera taldean egin eta fase bakoitzaren antolaketan parte hartzeko gai izatea, eta horretan, bere nahiz besteen ekarpenak balioestea, lortu beharreko emaitzak zein diren kontuan hartuta. • Ideia pertsonalen ekarpena egiten du, taldeko arazoak konpontzeko. • Taldekideen interbentzioak eta ekarpenak errespetatzen eta balioesten ditu. • Badaki lanak hausnartzea garrantzitsua eta premiazkoa dela. • Taldean parte hartzean, arrazoitu egiten du
---	---

6. Produktu estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan izan dituzten eta dituzten funtzio eta erabilerak ulertzea, eta korrante estetikoaren, moden eta gustuen bilakaeraz eta oparotasunaz jabetzea, horiek guztiek gure balioetan eta munduari nahiz gizakiari buruzko ikuskeretan zer-nolako eragina duten ulertzeko. 7. Artearen herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorberritzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren	egiten duena, lanaren xedeari begiratuta. • Lan molde kolektiboaren adibideak identifikatzen ditu iraganeko eta gaur eguneko artegintza eremu askotarikoetan. • Proiektu artistiko kolektiboak egiten eta garatzen ditu eta, horietan, gai komunei heltzeko modu askotarikoak lantzen dira, norberak egiten dituen planteamenduak arrazoituta. 2. Kritikoki aztertzea mezuetan esku hartzen duten baliabide plastiko eta bisualak, eta horretan, mezuaren intentzioari eta mezuok iritzi publikoan, bizi-estiloetan eta osasun indibidual nahiz kolektiboan duten eraginari igartzea. • Irudietan ageri diren adierazpen-elementuen irakurketa ugari egiten eta hautematen ditu. • Ikuspegi pertsonal eta arrazoituak hartzen ditu mezuak ikertu eta aztertzean. • Artelanak aztertzen ditu, eta, besteak beste, artelanetako euskarriak, teknikak, baliabideak eta konbentzioak balioesten ditu. 12. Sasoi historiko eta kultura desberdinetako artelan eta irudiak kritikoki aztertzeko gai izatea, eta mundua ulertzeko ikuskera desberdinekin nahiz gizarteak naturaz eta gizon-emakumeen proposatzen dituen diskurtsoekin lotzea artelan eta irudiok. • Debateetan parte hartzeko eta moden, gustuen eta joera estetikoaren aldaketan atzean dauden arrazoak ezagutzeko interesa ageri du. • Hitzak eta lengoaia bisuala erabiltzen ditu kultura askotarikoek historian egin dituzten artelanak aztertzeko, bai haien alderdi estetikoan, bai haien funtzio eta erabilerako alderdietan. • Ikuspegi kritikoaz aztertzen du nola lantzen dituzten gai konkrituak inguruan dituen produktu estetikoek –hala nola publizitateak, aldizkariak, telebistako serieak, zinemak, modak–. • Bere nortasunaren alderdiak adierazten ditu egiten dituen obretan. 12. Sasoi historiko eta kultura desberdinetako artelan eta irudiak kritikoki aztertzeko gai izatea, eta mundua ulertzeko ikuskera desberdinekin nahiz gizarteak naturaz eta
--	--

aberastasunaz jabetuta, kulturen arteko elkarrizketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoek egindako ekarpen ugarietako interesa izatea. 8. Norberarenaz eta gure inguruan nagusi direnez bestelako espresio bide estetikoak errespetatzea eta aintzat hartzea, eta horretan, prozesu erreflexibo eta kritikoak martxan jartzea, estereotipo eta konbentzionalismoak gainditu, proposamenak egitean erregistroak zabaltzea, eta malgutasunez, solidaritatez, interesez eta tolerantziarekin jokatzeko ikasteko.	gizon-emakumeen proposatzen dituen diskurtsoekin lotzea artelan eta irudiok. • Debateetan parte hartzeko eta moden, gustuen eta joera estetikoaren aldaketan atzean dauden arazoak ezagutzeko interesa ageri du. • Hitzak eta lengoia bisuala erabiltzen dituen kultura askotarikoek historian egin dituzten artelanak aztertzea, bai haien alderdi estetikoan, bai haien funtzio eta erabilerako alderdietan. • Ikuspegi kritikoaz aztertzen du nola lantzen dituzten gai konkretuak inguruan dituen produktu estetikoek –hala nola publizitateak, aldizkariak, telebistako serieak, zinemak, modak–. • Bere nortasunaren alderdiak adierazten dituen egiten dituen obretan. 13. Arte bizi garen errealitatea interpretatzeko eta ulertzeko bideetako bat dela jakitea, eta hura errealitateari buruzko beste ikuskera batzuekin (zientziarekin, esate baterako) lotzeko gai izatea. • Egoera konkretu bati aurre egiteko moduak aztertzea, bereizi egiten dituen arteak eman ditzakeen erantzunak eta jakintza beste alor batzuek eman ditzaketenak. 15. Arte- eta kultura-adierazpenak hango eta hemengo kulturen ondarearen eta identitatearen parte direla ohartzea, eta zenbait motatako arte-adierazpenen ezaugarriak identifikatzeko eta konparatzeko gai izatea. • Arte-estiloen oinarritzko ezaugarriak bereizten ditu. • Arte-adierazpenen ezaugarrien arteko loturak egiten ditu. • Irudiak aztertu eta konparatzean, aintzat hartzen dituen faktore kulturalak, sozialak eta pertsonalak. 13. Arte bizi garen errealitatea interpretatzeko eta ulertzeko bideetako bat dela jakitea, eta hura errealitateari buruzko beste ikuskera batzuekin (zientziarekin, esate baterako) lotzeko gai izatea. • Egoera konkretu bati aurre egiteko moduak aztertzea, bereizi egiten dituen arteak eman ditzakeen erantzunak eta jakintza beste alor batzuek eman ditzaketenak.
--	--

16. Gurean ohikoak ez diren espresibide estetikoak kritikoki aztertzeko eta interpretatzeko gai izatea, eta espresibideok beste pertsona batzuen adierazpen legitimotzat hartzea.
- Aldez aurretik dituen ideiak gaintzen ditu eta proposamen berriak ikertzen ditu bere eta besteren artelanetan.

ARAZO EGOERA

[Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguruaren daturik errebantzenak agertuko dira].

Ikasturtean landuko ditugun proiektuak **Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH)** oinarrituko dira. Hau da, proiektuetan garatuko ditugun edukiak GJHak aztertu eta euren inguruan irudiak egiteko erabiliko ditugu.

• 1. Arazo egoera:

KOLOREAK GJHen IKURRAN proiektua. Proiektu hau galdera honi erantzuteko sortzen da: **Nola harreman dezakegu kolorearen gaia Garapen Jasangarrirako Helburuekin?**

GJH bakoitzari egokitutako 17 koloreei buruzko ikerketa egin ondoren, kolore hauek oinarrituz, irudiak sortuko ditugu gure adierazpena lantzeko. Proiektuan zehar egindako ikerketarekin eta sortutako irudiekin argitalpen bat egingo dugu, Ikastolako etapa desberdinetan erabili ahal izateko; alde batetik, **Garapen Jasangarrirako Helburuen** gaia lantzerakoan, eta bestetik, Plastika arloan kolorearen gaia lantzerakoan erabilgarria izateko.

Modu kolektiboan planteatutako proiektu artistiko bat planifikatuko dugu, kide guztiek estilo bereko irudiak egiteko asmoz, izan ere, argitalpenaren atal desberdinetan estilo bera mantentzeko.



4.GJH: KALITATEZKO HEZKUNTZA



11.GJH: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

• 2. Arazo egoera:

GJHak IKUSIZKO PENTSAMENDUAREN BITARTEZ ADIERAZTEN proiektua. Proiektu hau galdera honi erantzuteko sortzen da: **Nola harreman dezakegu Ikusizko Pentsamenduaren gaia Garapen Jasangarrirako Helburuekin?**

GJH bakoitzak adierazten duen mezuari buruzko ikerketa egin ondoren, mezu hauek Ikusizko Pentsamenduaren baliabideetan oinarrituz azaldu eta adieraziko ditugu. Proiektuan zehar sortutako irudiak, mapak, posterrak eta abar Ikastolaren 2030 Agendaren komunikaziorako

erabiliko ditugu, irudiok 2030 Agendaren webgunean argitaratuz eta Ikastolako beharrianen arabera eremu desberdinetan erabiliz.

Modu kolektiboan planteatutako proiektu artistiko bat planifikatuko genuke, kide guztiek estilo bereko irudiak egiteko asmoz.



11.GJH: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

- **3. Arazo egoera:**

GJHei BURUZKO IRITZI proiektua. Proiektu hau galdera honi erantzuteko sortzen da: **Zein da gure iritzia Garapen Jasangarrirako Helburuei buruz? Nola adierazi Garapen Jasangarrirako Helburuei buruz dugun iritzia irudien bitartez?**

GJHei adierazten dituzten mezuak eta helburuak aztertu eta ezagutu ondoren, mezu hauei buruz dugun iritzia sortuko dugu. Garapen Jasangarrirako Helburuei buruz dugun iritzia irudien bitartez adieraziko dugu, irudiak sortzeko materialak berrerabiliz, hala nola, zurez, paperez, kartoiz, plastikoz eta bestelako materialez baliatuz. Era honetan, 12. GJHak planteatzen dituen helmugak gure irudiak egiteko prozesuan txertatuko ditugu. Proiektuan zehar sortutako irudiak Ikastolaren 2030 Agendaren komunikaziorako erabiliko ditugu, irudiok 2030 Agendaren webgunean argitaratuz, Ikastolako beharrianen arabera eremu desberdinetan erabiliz eta egindako lanarekin erakusketa bat antolatuz.

Modu kolektiboan planteatutako proiektu artistiko bat planifikatuko genuke, kide guztiek estilo bereko irudiak egiteko asmoz.



5.GJH: GENERO-BERDINTASUNA



11.GJH: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK



12.GJH: EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

EDUKIEN SEKUENTZIA

[denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektua, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

1. PROIEKTUA: 1. arazo egoera garatzen duena; KOLOREAK GJHen IKURRAN proiektua. (24 ordu)

Proiektu honetan hurrengo unitate didaktikoak garatuko ditugu, beti ere proiektuaren beharrezanean eta urratsei egokituta:

- **1. unitate didaktikoa:** irudiak sortzeko oinarritzko ikus-elementuak, bereziki kolorea, eta konposizioak. (10 ordu)
 1. Irudiak sortzeko oinarritzko ikus-elementuak: kolorea. Zirkulu kromatikoa, oinarritzko koloreak, bigarren mailakoak, kolore hotzak, beroak, koloreen eskala digitala, RGB eskala, HSL eskala...
 2. Irudiak antolatzeko elementu formalak: konposizioa eta oinarritzko elementuen arteko erlazioak, erritmoa, mugimendua, proportzioa, eskalak eta abar.
 3. Irudien azterketa eta kulturen forma estetikoetan duen aplikazioa.
 4. Objektuak eta espazioa argazkien bitartez irudikatu edo adieraztea.
 5. Erretorika bisuala: metaforak, alegoriak...
 6. Irudiek izan ditzaketen esanahiak ikertzea, haien testuinguru espresibo eta erreferentzialari erreparatuta. Oinarritzko ikus-elementu eta konposizioen bitartez adieraz daitezkeen esanahiak: armonia, kontrastea, lasaitasuna, mugimendua, norabidea eta abar.
- **2. unitate didaktikoa:** proiektuaren planifikaziotik azken emaitzara. (14 ordu)
 1. Artea landu eta sortzeko prozesuak: projektutik objektura.
 2. Proiektu kolektiboen eta talde-lanaren garrantzia artean eta kultura bisualean.
 3. Banakako proiektuak lantzea, ikertzeko zer-nolako adierazpen-aukerak ematen dituzten askotariko interbentzioek, ideia artistikoak garatze aldera.
 4. Proiektu kolektiboen eta talde-lanaren garrantzia artean eta kultura bisualean.
 5. Arte-produkzioa, ikerketa-prozesua den aldetik:
 - Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea. Informazioa ulertzea, balioetsi eta adieraztea.
 - Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea. Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
 - Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
 - Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
 - Lortutako emaitzaren berri ematea.
 6. Adierazpen grafiko eta plastikoko teknikak. Ezaugarriak, ahalmenak eta erabilerak.
 7. Teknologia-euskarrien bidez adierazteko teknika oinarritzkoak: argazkigintza, bideogintza, ordenagailua...
 8. Euskarriak, materialak eta tresnak. Haien ezaugarriak, berezitasunak eta erabilera moduak.
 9. Diseinua: eguneroko bizitzan arteak aplikatzeko eremua.

2. PROIEKTUA: 2. arazo egoera garatzen duena; GJHak IKUSIZKO PENTSAMENDUAREN BITARTEZ ADIERAZTEN proiektua. (22 ordu)

Proiektu honetan hurrengo unitate didaktikoak garatuko ditugu, beti ere proiektuaren beharrezanean eta urratsei egokituta:

- **1. unitate didaktikoa:** irudiei ematen zaizkien funtzioak. (2 ordu)
 1. Irudiei ematen zaizkien funtzioak: funtzio ideologikoa, informazioa ematekoa, komunikazio teknikoaren euskarri izatea, pedagogikoa...
 2. Forma artistikoen bidez erantzunak eta kritika soziala bideratzeko aukerak.
 3. Arteek eguneroko bizitzan dituzten balio funtzional eta estetikoak: diseinuaren oinarriak eta eremuak.
- **2. unitate didaktikoa:** teknologia-euskarriak ikertzea. (6 ordu)
 1. Teknologia-euskarriak ikertzea, arakatzea eta haien ahalmen eta ezaugarrien gainean hausnartzea.
 2. Material ohikoak eta ezohikoak bilatzea, ikertzea eta eskuz erabiltzea, eta haien adierazpen-ahalmenak arakatzea bi eta hiru dimentsiotan.
 3. Teknika eta material ugari erabiltzea artelanetan, ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazi eta komunikatzeko.
 4. Teknika bakoitzean behar diren tresnak erabiltzea, haiek ezagutu, haien erabilera menderatzeko eta haien ezaugarriak eta erabilera-aukerak ikertzeko.
 5. Teknikak eta haien prozesu eta emaitzak aztertzea eta konparatzea, beren erabilerei eta esanahiei erreparatuta.
- **3. unitate didaktikoa:** banakako proiektua burutzea, proiektuaren planifikaziotik azken emaitzara. (14 ordu)
 1. Artea landu eta sortzeko prozesuak: proiektutik objektura.
 2. Proiektu kolektiboen eta talde-lanaren garrantzia artean eta kultura bisualean.
 3. Banakako proiektuak lantzea, ikertzeko zer-nolako adierazpen-aukerak ematen dituzten askotariko interbentzioek, ideia artistikoak garatze aldera.
 4. Arte-produkzioa, ikerketa-prozesua den aldetik:
 - Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea. Informazioa ulertzea, balioetsi eta adieraztea.
 - Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea. Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
 - Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
 - Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
 - Lortutako emaitzaren berri ematea.
 5. Sortze-prozesuari buruzko dossier indibidualak egitea, ideiak sortu eta informazioa bilatzeko urratsetik hasi eta amaierako aurkezpenaren eta auto-ebaluazioaren urratsera arte.
 6. Lan artistikoaren plangintzak eta jarraipenak duen erabilgarritasuna aitortzea.
 7. Norberaren emozioak, komunikazioa (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala), motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.
- **3. PROIEKTUA: 3. arazo egoera garatzen duena; GJHei BURUZKO IRITZI proiektua.** (20 ordu)
 - **1. unitate didaktikoa:** irudiei ematen zaizkien funtzioak. (4 ordu)
 1. Mundu fisikoaren pertzepzioa eta haren adierazpena, fenomeno konplexua, testuinguru-faktoretara baldintzatua, den aldetik.

2. Irudiak, errealitatearen gaineko diskurtsoen eta munduarekiko begiraden oinarri diren aldetik.
 3. Obra irekiaren ideia: ikusleen egitekoa obraz jabetu eta hura interpretatzean (bizipenak, ezagutza artistikoak, kokapena, une historikoa, etab.).
 4. Artearen, artisten eta lan artistikoaren gaineko ikuskerak historian eta kultura askotarikoetan.
 5. Forma artistikoen bidez erantzunak eta kritika soziala bideratzeko aukerak.
 6. Ikertzea eta ikuspegi kritiko aztertzea nola lortzen duten arteko eta beste bitarteko batzuetako irudiek munduari eta norberari buruzko ikuspegiak ematea, diskurtsoak eraikitzea eta errealitatearen gaineko jarrera jakinak finkatzea.
 7. Arteaz eta artisten lanaz historian zehar izan diren ikuspegiaren gaineko debate arrazoituak egitea.
 8. Mota askotako diseinu-produktuak behatu eta aztertzea: bideo, multimedia, publizitate eta diseinuko irudiak irakurtzea, antolamendua eta esanahiak osatzeko elementu formal oinarritzekoak ezagutzeko.
 9. Publizitatean, interneten, bideo jolasetan, errebistetan eta komunikabideetan agertzen diren beste ekoizpenetan, erabiltzen diren irudien balorazio kritikoa generoaren ikuspegitik.
- **2. unitate didaktikoa:** banakako proiektua burutzea, proiektuaren planifikaziotik azken emaitzara. (16 ordu)
1. Proiektu kolektiboak lantzea, prozedura estetikoaren bidez irudiak sortzeko eta, horien bitartez, gizarte-arazoei erantzun edo lehendik dauden irudiekiko elkarriketak sortzeko.
 2. Proiektu kolektiboak lantzea, ikertzeko zer-nolako adierazpen-aukerak ematen dituzten performanceek, instalazioek eta askotariko interbentzioek, ideia artistikoak garatze aldera.
 3. Interbentzio plastikoak egitea ingurunean, eta argiak, soinuak eta antzeko elementuak erabiltzea esanahiak osatzeko.
 4. Adierazpen grafikoko arazoei aurre egitean, irtenbide originalak bilatzeko jarrera izatea.
 5. Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea. Arte-adierazpen gehienetan lankidetzaren behar dela eta hura funtsezkoa dela aitortzea.
 6. Arte-produkzioa, ikerketa-prozesua den aldetik:
 - Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea. Informazioa ulertzea, balioetsi eta adieraztea.
 - Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea. Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
 - Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
 - Plangintzaren eta egindako lanaren ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
 - Lortutako emaitzaren berri ematea.
 7. Sortze-prozesuari buruzko dossier kolektiboak egitea, ideiak sortu eta informazioa bilatzeko urratsetik hasi eta amaierako aurkezpenaren eta auto-ebaluazioaren urratsera arte.
 8. Lan artistikoaren plangintzak eta jarraipenak duen erabilgarritasuna aitortzea.

METODOLOGIA

[edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

Plastika arloan jarraituko dugun metodologia **Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza** izango da, epe ertain edo luzeko proiektuak landuz. Proiektuak era desberdinetakoak izango dira, batzuetan irakasleak eduki zehatzak lantzeko planteatutakoak eta azken emaitza bat lortzekoak, bestetan eskola bizitzan agertzen zaizkigun arazoei erantzuna ematekoak, momentuan agertzen edo sortzen diren arazoengatik ingurukoak eta bestelakoak. Kasu horietan **Arazoen Ebazpenean Oinarritutako Ikaskuntzaren**

metodologia landuko dugu, gure helburua agertzen zaizkigun arazoei konponbidea ematea izanik. Plastika arloan landuko dugun ebazpen mota nagusia ikusizko ebazpena izango da, nahiz eta metodologia honek beste arloetako edukiak lantzea eskatuko digun baita.

Proiektuetan landuko ditugun edukiak gure Ikastolako eta gizarteko gaiekin harremana dutenez, landuko ditugun proiektuen azken hartzaileak ikasleak eta Ikastola osatzen dugunok izango gara. Hau dela eta, proiektuetan **Ikasketa Zerbitzuaren** metodologia landuko dugu, hau da, gure ingurukoentzat lan eginez. Lortutako emaitzak Ikastolan, gure webgunean eta plataformetan argitaratuko ditugu eta munduari erakutsiko dizkiogu.

Ikasleek proiektu hauei landutako edukien bitartez emango diete erantzuna. Azken urteetako pandemia egoera eta COVID protokoloak direla eta, ezin izango ditugu lehen aipatutako bi metodologiak **Ikasketa Kooperatiboaren** metodologian oinarritu. Beraz, lanak banakakoak izango dira. Hala ere, proiektuan zehar Ikasketa Kooperatiboaren zenbait egitura landuko ditugu, hala nola, *3 minutuko geldialdia*, *1-2-4 egitura*, *Galderen katea*, *Zalantza poltsa* eta beste batzuk. Egitura horiek ikasle guztien artean eta talde osoko bileran landuko ditugu, momentuko beharrianen arabera.

Landuko ditugun proiektuen gaiak eta ikasleei planteatuko zaizkien arazoak euren eskola bizitzan agertzen zaizkienak izango dira batez ere: hezkuntzari buruzkoak, lan egiteko moduei buruzkoak, antolaketari buruzkoak, Ikastolako beharrian desberdinei buruzkoak, beste maila edo euren mailako arlo batzuekin lotura izan dezaketen gaiak buruzkoak eta abar. Proiektuetan lantzeko gaiak ikasleek eurek ere aukera ditzakete.

Azken ikasturteetan erabiltzen ari garen metodologia kontuan izanik, planifikatutako proiektuetan aldaketak ezarri behar izatea gerta dakiguke, agertuko zaigun hurrengo arazoa zein izango den ez dakigulako. Hala ere, edozein arazori aurre egiteko beti aplikatuko ditugu ikas arlo honetan maila honetarako planteatuta dauden helburuak eta edukiak, eta horiek ebaluatzeko zehaztuta dauden ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak.

Proiektu desberdinetan landuko diren edukiak azaldu, aztertu eta sailkatzeko, ikasleek arlo eta mailako webgunean dituzten aurkezpenak, aurreko ikasturteetan ikasleek egindako lanak, mapa kontzeptualak, bideo eta Interneteko beste webguneetarako estekak erabiliko dituzte euren kabuz informazioa kontsultatu eta edukiak sortzen hasteko, *flipped classroom* modeloan oinarrituta batzuetan. Ikasleek ikerketa lan hau ia beti ikasgelan egingo dute, eta noizbait etxean euren kabuz egingo dute, irakasleak proposatutako edukiak kontsultatuz eta aholkatutako bideoak eta webguneak erabiliz. Ondoren, ikasgelan, prestatutako lan hori oinarria izango da edukien inguruan ikertutakoa taldeka eta talde osoko bileran partekatzeko eta edukietan gehiago sakontzeko. Talde osoko bileratan aurkezpen desberdinak egingo dira, taldeko kide guztien artean edukiak azalduz, osatuz, gehituz eta partekatuz. Aurkezpen hauetan ere, irakasleak egindako eta aukeratutako aurkezpen eta irudiak erabiliko dira eduki desberdinak azaldu eta aztertzeko. Ikasleek euren iPadean irudi desberdinak bilatuz, proiektatuz eta aztertuz edukien azalpenetan parte hartuko dute, era honetan, teknologia eta tresna digitalak era egokian erabiltzen ikasiko dute. Edukien azalpen-aurkezpen prozesu hau ikaslearen irakurketa bultzatzeko baliagarria izango da.

Ikasleak informazio iturri desberdinetan informazioa eta irudiak bilatu, bildu eta aukeratuko ditu proiektu bakoitzean aztertu eta landuko diren Plastikaren eta Ikusizkoen edo Artearen oinarritzko baliabide eta arau nagusien azterketa egiteko. Irudi eta informazioa bilatzearen ikerketa prozesu hau ikaslearen irakurketa bultzatzeko baliagarria izango da. Proiektu bakoitzean, eta beharrianen arabera, lantzen ari garen gaiarekin harremana duten testu desberdinen irakurketa-ulermen jarduerak antola daitezke. Jarduera hauek Ikasketa Kooperatiboaren egiturak aplikatuz egin daitezke. Irakurketa-ulermena lantzeko jarduerak

arloko webgunean zehaztuta dugu, esteka honetan eredu agertzen da:

https://docs.wixstatic.com/ugd/10491c_c4b8bdaf1371437595cf4a80cd730cd0.pdf

Proiektu bakoitzean, ikasleak bere irudiak sortuko ditu aztertutako edukiak, teknikak, tresnak eta materialak bere lanetan aplikatuz, mezu desberdinak adierazteko. Ikasturte honetako pandemia egoera eta COVID protokoloak direla eta, ikasleak lan hauek banaka egingo ditu. Ikasleak, aukera dagoen heinean, irudi batzuk iPadaren bitartez egin ahal izango ditu, teknologia eta tresna digitalek gai honetan eskaintzen dituen aukerak ezagutu, frogatu eta lantzeko.

Proiektuaren beharrianen arabera edo unitate didaktikoaren arabera, Pentsamenduan Oinarritutako Ikaskuntza metodologian oinarritutako Pentsamendu Trebetasunen bat landu dezakegu. Plastika arloan erabiliko ditugun trebetasun motak hauek dira: *Zatiak eta Osotasuna, Konparatu eta Kontrastatu eta Ideia Sortzaileak Trebetasunez Asmatzen*.

Ikasleek egindako lanekin aldikako erakusketak antolatuko dira etapako edota Ikastolako eraikineko topalekuetan. Era honetan, etapako ikasleek eta Ikastolako edozein partaidek, maila honetako ikasleek irudien bitartez adierazten dituzten mezuak edo ikertutako arazoen inguruko ikusizko ebazpenak ikusgai izango ditu, eta emaitza horietara ailegatzeko ikasleek Plastikaren eta Ikusizkoen teknika, baliabide eta arau nagusiak nola erabiltzen dituzten bereizi eta aztertu ahal izango dituzte baita, proiektuari buruzko azalpenekin lagunduta. Erakusketa hauek arloko webgunean argitaratuko dira baita, eta baita Ikastolako webgunean ere, arloko webgunerako bertan estekatua baitago.

Ikasleak Ikusizkoen Hizkuntzaren baliabideak eta hauen ezaugarriak ikasturte guztian zehar aztertu eta landuko dituzenez, ikasturtea aurrera joan ahala, baliabide hauen bitartez adieraz daitezkeen mezuak era egokiagoan ulertu eta bereganatuko ditu (irudien ikusle bezala), eta bere lanetan era egokiagoan landu eta erabiliko ditu (irudien egile bezala). Ikas arloaren helburu eta edukiak azaldu, aztertu eta lantzeko planteamendu edo metodologia honi esker, ikasleak ebaluazio bakoitzean landuko dituen edukiak, aurreko ebaluazioetan landutakoetan oinarrituta egongo direnez, azken ebaluazioak ikasturtean landutako eduki guztiak bilduko ditu bere baitan, ikaslearen edukien asimilazio progresiboa ahalbidetuz.

DBHko 4. mailako Plastika arloko webgunea, <https://www.plastikagela.com/>, baliabide nagusia izango da edukiak azaldu eta eredu desberdinak ikusi eta aztertzeko. Bertan, arloko gai eta eduki desberdinak sailkatuta agertzen dira: mailako programazio laburtua, aurreko ikasturteetan landutako proiektuak, edukien azalpenak, irudiak eta ariketak egiteko ereduak, edukien mapa kontzeptualak, ikasle eta irakasleen lanak eta erakusketak, aurreko ikasturteetako ikasleek sortutako lan adierazgarrienak (eredu bezala izateko), webgune interesgarrietarako estekak eta abar. Ikasleek iPadetan instalatuta duten Showbie aplikazioa proiektuak bideratzeko eta hauen urratsak zehazteko erabiliko dugu.

Webgunean bertan arloko beste hiru plataforma digitalak estekatuta agertzen dira. Plataforma hauetan arloko edukiak, azalpenak, aurkezpenak eta ikasleen proiektuak eta lanak azaltzen dira:

<https://www.slideshare.net/plastika>: arloko aurkezpenak dituen plataforma.

<https://issuu.com/plastika>: arloko argitalpenak dituen plataformak.

<https://www.youtube.com/user/plastikagela>: arloko bideoak dituen plataformak.

DBHko 4. mailako proiektuez gain, webgunean ere DBHko 1. eta 2. zikloetako Plastika eta Marrazketa Teknikoa arloetako proiektuen informazioa eta bestelakoak izango dituzte ikasleek.

Arloko webgunea Ikastolako webgunean estekatuta agertzen da, <http://www.lauroikastola.eus/>, era

honetan, Ikastolako edozein ikasle, guraso eta irakasleri DBHko Plastika eta Marrazketa Teknikoa arloetako webgunea erabiltzeko erraztasunak eman nahi dizkiegu arloan lantzen diren edukiak eta lanak ikusi ahal izateko.

Ikasleek erabiliko duten baliabide nagusia iPada izango da. iPada edukietara ailegatzeko tresna izango da, hau da, informazio iturri desberdinak kontsultatzeko tresna bezala erabiliko dugu: webgunean, Interneten eta erabiltzen ditugun aplikazioetan arloari eta momentuan lantzen ari garen gaiari buruzko informazioa lortzeko. iPadeko edukiak erakusteko eta aurkezteko proiektorea eta AppleTV tresna erabiliko ditugu. Aurkezpenetan, argazkiak eta bestelako irudiak erabiliko ditugu baita, ikasgaian landuko diren irudi desberdinen behaketa eta azterketa egiteko.

Arloko edukiak eta informazioa lortzeko, eta irudiak, bideoak eta bestelako dokumentuak sortzeko, ikasleek iPadean aplikazio desberdinak izango dituzte: Camara, Showbie, Edpuzzle, Pages, Keynote, SketchBook, iMovie, Canva eta momentuan lantzen ari garen proiekturako beharrezkoak izan daitezkeenak.

Ikasleak proiektu bakoitzeko edukien azalpenak, era desberdinetako irudiak eta infografiak ikasgelako kortxoetan izango ditu, nahi duenean kontsulta egin ahal izateko.

Proiektu bakoitzeko edukien azterketa egiteko ikus-entzunezko baliabideak erabiliko dira baita: TBko iragarkiak, dokumentalak, filmak, Interneteko bideoak eta abar. Era honetan, ikasleek ikus-entzunezko baliabideen azterketa egiteko aukera izango dute. Bitarteko hauek erabiltzeko iPada eta ordenagailua eta proiektorea erabiliko dira. Hauen bitartez, ikasleak artista desberdinen lanak ikusi, ezagutu eta aztertu ahal izango ditu, arteak edo ikusizkoen adierazpenak gizartean mezuak azaltzeko duen ahalmena eta eragina aztertuz. Eduki batzuei buruzko informazioa edo irudiak egiteko ariketa batzuk fotokopien bitartez emango zaizkie ikasleei.

Ikasleek irudiak sortzeko erabiliko dituzten materialak (marrazkiak eta irudi proiektuak egiteko): arkatzak, margoak, orriak, kartoi meheak, zuzenkia, eskuaira eta kartaboia, konpasa, artaziak, lekeda, zela eta abar izango dira. Ikasturte honetako pandemia egoera eta COVID protokoloak direla eta, ikasle bakoitzak bere materiala ekarriko du. Teknologia digitalen bitartez irudiak egiteko, hau da, iPadean marraztu eta margotzeko, ikasle bakoitzak bere gustuko edo aukerako arkatz digitala ekarriko du.

2030 Agendak planteatzen dituen material desberdinen kontsumo arduratsua, kudeaketa eta zainketa zentzuduna eta paperaren berrerabilpena, Plastika arloan modu zuzenean lantzen dugu. Ikasleek euren irudi proiektuak burutzeko, aurretiaz erabilitako orriak berrerabiliko ditu zirriborroak marraztu eta margotzeko, materialen berrerabilpena eta ondasunen kudeaketarekiko ardura lantzeko. Landuko diren proiektuetan materialak berrerabiltzearen gaia landuko da ikasleekin, era honetan, ikasleek hondakinetak materialak arte lanak sortzeko erabili ahal izango dituzte.

Honez gain, Ikastolako 2030 Agenda-planari jarraituz, DBHko 4. mailako Plastika arloan Garapen Jasangarrirako Helburuak landuko ditugu, ikasturteko proiektu guztiak GJHetan oinarrituz.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua etabalia]
Ebaluatze teknikak eta tresnak: Ebaluaziorako errubrika: proiektu bakoitzean landuko diren edukien arabera errubrika prestatuko da. Errubrikan proiektuan zehar landutako urrats	Hiruhilabeteko bakoitzeko kalifikazioa honela zehaztuko da: 1. PROIEKTUA % 80 balioarekin.

deberdinak azalduko dira eta bertan agertuko diren edukiak eta balioak ikasleekin adostu dira.

Proiektua eta ikasleen lana: proiektu bakoitzean ikasleek euren irudiak egingo dituzte aztertu eta landutako edukiak bertan aplikatuz. Ikasleek proiektuan planteatzen duten mezua irakasleari eta taldeko kideei azalduko diete, landutako Plastikaren eta Ikusizkoen baliabideen erabilera azalduz. Lanaren azalpena eta irudi proiektuan jarraitutako lan – prozesua (lanean egindako irudi eta zirriborroak eta azken emaitza) Plastikaren eta Ikusizkoen teknika, baliabide eta arau nagusien erabilera ebaluatzeke erabiliko da.

Talde osoko bileran parte hartzea: proiektu bakoitzean aztertu eta landuko diren teknika, baliabide eta arau nagusiak inguruneke irudiak bereiziz, deskribatuz, aztertuz eta azalduz egingo da. Azterketa saio hauen helburuetako bat irudiak eta artelanak kritikoki interpretatzea da. Ikasleak saio hauetan era egokian parte hartzea positiboki baloratuko da.

Irakaslearen gela barruko behaketa: ikasleak lana egiteko beharrezko materialak ikasgelara eraman eta nola erabiltzen dituen, lanarekiko jarrera positiboa duen eta ariketak egiteko gogoia adierazten duen ebaluatzeke erabiliko da. Honez gain, ikasleen lanaren jarraipena egiteko eta laguntza zehatza emateko ere erabiliko da.

Notaren % 30: proiektuaren gaiari buruzko informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea. Informazioa ulertu, interpretatu eta ebaluatzea. Landutako informazioan oinarrituta errealitatea hobetzeko ikusizko proposamenak sortzea.

Notaren % 35: aurrez planifikatutako sormen prozesua gauzatzea, beharrezkoak diren egokitzapenak eginez, sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatuz eta hobekuntzak egiteko proposamenak eginez.

Notaren % 35: taldean ikastea eta lan egitea, Ikasketa Kooperatiboaren egiturak ulertzea eta proiektuan aplikatzea, norberaren erantzukizunak onartuz eta denen artean erdietsi beharrekoetan elkarlanean arituz, eta pertsonen eta iritzien arteko aniztasunak dakarren aberastasuna aintzat hartuz.

2. ZEHARKAKO GAITASUNAK % 20 balioarekin.

Hiruhilabeteko bakoitzean Ikastolak zehaztutako bi gaitasun kalifikatuko dira, bakoitza %50 balioarekin.

Gure arloan, proiektuari dagokion atalean kalifikatzen diren gaiak gaitasun moduan zehaztuta daudenez, ikasleen emaitzak berdintsuak izanen dira proiektua eta zeharkako gaitasunak atalean.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

[indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio- sistema...].

Ikasleak ez badu ebaluazioren bat gaingitzen, egin dituen akatsak berarekin aztertu ondoren, ondorengo ariketak egingo ditu ebaluazioko edukiak berrikasteko. Ariketa mota egindako akatsaren arabera zehaztuko da:

Ebaluazioan aztertzen diren elementu eta ezaugarri desberdinak bereizi, deskribatu, aztertu eta azaltzea.

Ebaluazioan lantzen diren elementu eta ezaugarriak erabiliz adierazpen eta komunikazio premietara egokitutako mezu bat irudiz sortzea.

Ebaluaziorako errubrikan azaldutakoak hobetzea.

Ikasturtean zehar burutuko diren edukiak era progresiboan landuko direnez, eta ebaluazioa jarraitua izango denez, ebaluazio bat ez bada berreskurapen sistemaren bitartez gaingitzen, hurrengo ebaluazioa gaingituz gero, aurreko ebaluazioko edukiak ere gaingitutzat emango dira. Kasu honetan, ikaslearekin indartu behar dituen edukiak zeintzuk diren aztertuko da eta prozesuaren jarraipena ikaslearekin berarekin egingo da.

Ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren, ikasleak arloa gaingitzeke izango balu, berreskurapena era honetan egingo da: ikasleak egin dituen akatsak berarekin aztertu ondoren, mailako gutxiengo helburu hauek biltzen dituen ariketak egingo ditu irakaslearen gainbegiraketaz:

- Plastikaren oinarritzko teknikak eta baliabideak ondo erabiltzea.

- Plastikaren prozeduretan oinarrituta, oinarrizko teknikak eta baliabideetan oinarrituz gure ingurunean eragiteko proiektu baten planifikazioa eta frogak egitea.

Ikasleak ariketa hauek Ikastolak finkatutako epeak errespetatuz aurkeztuko dizkio irakasleari. Ariketa hauen helburuak betetzen baditu arloaren berreskurapena lortuko du.

Ikasleak aurreko mailako arloa gainditzeke izango balu, aurreko ikasturteko irakasleak momentuko irakasleari ikaslearen gabeziak azaldu eta bi irakasleen artean aurreko mailako edukiak biltzen dituzten ariketak prestatuko dituzte. Ikasleak ariketa hauek momentuko irakaslearen gainbegiraketaz burutuko ditu, eta Ikastolak finkatutako epeak errespetatuz aurkeztuko ditu. Ariketa hauen helburuak betetzen baditu aurreko mailako arloaren berreskurapena lortuko du. Ikasleek aurreko mailako arloa berreskuratzeko beste sistema bat izango dute baita: arloko edukiak mailaka ere era progresiboan landuko direnez, maila honetako ebaluazioren bat gaindituz gero, aurreko mailako arloa automatikoki berreskuratuko du.

OHARRAK

Azken ikasturteetan beste etapetako irakasle eta ikasleekin elkar lanean aritu gara. Proiektuen azken hartzaileak ikasleak izan daitezkeenez, proiektua **Ikasketa Zerbitzuaren** metodologia landuz burutuko dugu, hau da, besteentzat lan eginez. Ikasleek landuko dituzten proiektuek beste etapetako ikasleentzat egokiak direla ikusten badugu, proiektuan landutako edukiak etapa desberdinetako ikasleekin frogatzeko aukerak aztertuko ditugu eta ikasle hauentzat jarduerak antolatuko ditugu.

Horrela balitz, edukiak, jarduerak eta bestelakoak beste etapetako irakasleekin adostuko ditugu, euren ikasleen beharrianen arabera. Ikasleek sortu behar duten proiektuak beste etapetako ikasleek euren arlo eta gai desberdinak lantzeko egokiak izan beharko du. Proiektuan planteatutakoaren arabera, ikasleek landutako edukiak aukeratu, frogatu eta aztertu beharko dituzte, arazoari ebazpen egokiena bilatzeko asmoz.